

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2011EKO OTSAIAREN 4AN EGINIKO OHIKO
BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2011eko otsailaren 4ko eguerdiko 12:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
(Guztiak Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldekoak).
- Maite PEÑA LOPEZ (EAJ PNV)
- Joxe Maria BURGOS VIÑARÁS (Alkarbide).

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Joseba ECHARTE MARTIN (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

1. Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 17an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Behin behineko Idazkari Nagusiak Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 17an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

- Onartzea Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 17an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

2. Diruzain lanpostua betetzeko ohiko lehiaketa arautuko duten oinarri bereziak onartzeko proposamena, estatu izaerako gaitasuna duten funtzionarioentzat gordetako.

Indarrean dagoen langileen plantilan bete gabe dago estatu izaerako gaikuntza duen funtzionarioei gordetako diruzain lanpostua.

Ohiko lehiaketa hauek urtean behin izaten dira, eta Toki Udalbatzak hutsik dituzten lanpostuak eskaintzera derrigortuta daude, eta, aldi berean, behartuta daude lanpostu bakoitzeko lehiaketa arautuko duten oinarri zehatzak onartzera.

Kontutan izanik Langileria Batzordea ados dagoela proposaturiko oinarriekin.

Jakinaren gainean egonik, Alkatetzak 2007ko ekainaren 22ko Dekretuan erabakitako eskuordetzen baitan, erabaki hau hartzea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena dela.

Giza Baliabideko ordezkariaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historiko honetan deituko duen ohiko lehiaketa bateratua arautuko duten oinarri zehatzak, hain zuzen ere udal honetan hutsik dagoen Diruzain lanpostua behin betiko izaeraz betetzeko oinarriak, estatu izaerako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako eta espedientean jasota daudenak.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen hitzez hitzeko egiaztatigiria bidaltzea, baita espediente hau osatzen duen I. eraskina ere, hain zuzen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7. atalak ezarritakoari

jarraiki, Lurralde Historiko honetako ohiko lehiaketa hauek deitzeko ahaldua den Erakundea baita.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.